

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

#### **Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 54. sektorea –Arangiz industrial– birpartzelatzeko proiektuari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 5ean egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea 54. sektoreko –Arangiz industrial– hirigintza-eremua birpartzelatzeko proiektuari.

2. Probidentzia hau ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarriko da, jabe bakarraren kontura, eta hilabetez ikusgai egongo da proiektua udal bulegoetan –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea, Vitoria-Gasteiz– nahi duenak azter dezan, eta inork egoki baderitzo, erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Erabaki honen berri ematea dosierrean ageri diren interesdunei, eta ebatzi beharrekoen atalean aipatutako txosten teknikoa eranstea.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 8an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**